

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023/10/02tik 2024/09/29ra)

43. astea (2023/10/23-2023/10/29)

COVID-19aren intzidentzia beherantz doa eta gripearen aktibitatea aurreko asteko balioen antzekoetan mantendu da. Bronkiolitisaren kasuan, bere aktibitateak igotzen jarraitzen du bai Lehen Mailako Arretan, bai ospitaleetan.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 298,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (307,4/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak behera egin du, baina bronkiolitisarenak goranzko joera mantentzen du.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 38 lagin jagoleen % 57,9 baieztatu da, 2 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 5,3) eta 4 ABS (positibotasuna % 10,5) atzeman direlarik. 15 errinobirus ere detektatu dira (positibotasuna % 39,5).
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 9,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,4/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 107 SARS-CoV-2, 32 gripe-birus eta 28 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen esker, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 298,6 kasukoa izan da (307,4/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 261,3/100.000 izan da Araban, 305,7/100.000 Bizkaian eta 304,6/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 2005,1 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 393,2 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 5-14 urteko adin-taldean eta behera egin edo mantendu egin dira besteetan.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasak aurreko asteko antzeko balioetan mantendu dira ESI gehienetan.


AIaren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 43. astea	Tasa 42. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	284,5	297,9	0,96 (0,95-0,96)
Arabar Errioxako ESI	460,1	426,0	1,08 (1,06-1,10)
Barakaldo-Sestaoko ESI	240,1	275,2	0,87 (0,86-0,89)
Barrualde-Galdakaoko ESI	318,8	319,8	1,00 (1,00-1,00)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	331,1	341,9	0,97 (0,97-0,97)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	332,4	308,1	1,08 (1,07-1,09)
Uribeko ESI	243,1	260,5	0,93 (0,93-0,94)
Bidasoako ESI	228,4	259,6	0,88 (0,86-0,90)
Debararrenako ESI	313,9	350,2	0,90 (0,88-0,91)
Debagoienako ESI	233,0	306,5	0,76 (0,73-0,79)
Donostialdeako ESI	291,0	291,5	1,00 (1,00-1,00)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	339,6	354,3	0,96 (0,95-0,96)
Tolosaldeako ESI	395,1	337,6	1,17 (1,15-1,20)

Gripe-sindromearen tasa aste honetan 2,8 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (3,4/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) goranzko joera mantendu eta 343,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (270,4/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAREN sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIARako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 38 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 57,9 baieztatu dira. Bi SARS-CoV-2 eta 4 ABS atzeman dira. 15 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Aste honetan ez da gripe-birusik atzeman, SARS-CoV-2aren positibotasuna % 5,3an kokatu da (% 6,8 aurreko astean) eta ABSrena % 10,5eraino igo da (% 2,3 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 39,5koa izan da (% 34,1 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	43. astea		42. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	0	0,0	2	1,5
SARS-CoV-2	2	5,3	3	6,8	12	8,8
ABS	4	10,5	1	2,3	8	5,9
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	3	7,9	2	4,5	6	4,4
Adenobirus	0	0,0	1	2,3	1	0,7
Errinobirus	15	39,5	15	34,1	51	37,5
Urtaroko CoV	0	0,0	0	0,0	0	0,0

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 9,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,4/100.000 aurreko astean), 7,4/100.000 emakumeetan eta 11,9/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 5 urtetik beherakoen adin-taldean eman da, 37,3 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 25,7 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 15 urtetik beherakoetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Aste honetan, SARS-CoV-2ren eta gripe-birusaren positibotasunek behera egin dute, eta ABSrenak gora egin du berriro (% 7,4tik % 13,9ra). Errinobirusaren positibotasunak behera egin du (% 40,6tik % 15,6ra).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	43. astea		42. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	160	12,5	155	20,0	740	17,3
Influenza	135	3,0	133	5,3	576	4,3
ABS	101	13,9	94	7,4	419	5,5

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE



Arnas birusen detekzioak IMSn


Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Mikrobiologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 107 SARS-CoV-2, 32 gripe-birus eta 28 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 32 gripe-birusetatik, 29 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, bat A(H3) eta 2 A(H1)pdm09. 2023/40 astetik 135 detekzio erregistratu dira, 132 (% 97,8) A motakoak eta 3 (% 2,2) B motakoak. Azpitipatutako A motako 17 birusetatik, bat (% 5,9) A(H3) eta 16 (% 94,1) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, irailean, PCR bidez azterturiko SARS-CoV-2ren lagin positiboek % 38,8 sekuentziatu dira. Guztiak Omikron

aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak EG.5.1 (% 30,9), XBB.1.5 (% 9,5), JD.1.1 (% 8,6),XBB.1.16 (% 8,6) eta DV.7.1 (% 5,7) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 43. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 12,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (24,6/100.000 aurreko astean); 12,1 gizonetan eta 12,2 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 28 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik (57 ospitaleratu aurreko astean), 13 gizon eta 15 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 89,3 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



Urteko 43. astean, COVID-19 10 kasu berri erregistratu dira EAeko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (9 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 9 izan da, aurreko astean baino bat gehiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2023ko azaroaren 2an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**